

2017

HARROBIA BHIPren HEZKUNTZA PROIEKTUA

EUSKARA AHOAN ETA MUNDURA EROAN



Onartuta: 2017ko urriak

Aurkibidea

1.	Ikastolako testuinguruaren azterketa	2
1.1.	Testuinguruaren eta ibilbidearen azterketa.....	2
1.1.1.	Testuingurua.....	2
1.1.2.	Ibilbidea	3
1.2.	Hezkuntza-beharren azterketa, ikasleen ikaskuntza-emaizetan oinarriturik	4
1.3.	Ikastolaren hezkuntza-praktika orokorraren eta antolakuntzaren azterketa.....	6
2.	Printzipioak, balioak eta nortasun-ezaugarriak.....	8
3.	Helburuak eta lehentasunak	10
4.	Curriculumaren eta antolamenduaren esparruetako aukerak	12
4.1.	Curriculumaren esparrua	12
4.1.1.	Aukera metodologikoak	12
4.1.2.	Ebaluazioa.....	14
4.1.3.	Hezkuntza eskaintza.	14
4.1.4.	Ikasleen aniztasunari erantzutea.....	17
4.1.5.	Orientabidea eta tutoretza.....	17
4.1.6.	Ikastolaren hizkuntza-plangintza.....	18
4.1.7.	Prestakuntza eta berrikuntza.	18
4.2.	Antolamenduaren esparrua	20
4.2.1.	Ikastetxearen antolaketa, funtzionamendua eta kudeaketa	20
4.2.2.	Partaidetza eta bizikidetza	21
4.2.3.	Prestakuntza atala. LAE (Lanbide Arloko Ekipoa):.....	24
5.	Iraunaldia eta berrikuspena	26

1. Ikastolako testuinguruaren azterketa

1.1. Testuinguruaren eta ibilbidearen azterketa

1.1.1. Testuingurua

Harrobia BHIP Bilboko Miribilla, Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoen artean kokatua dago, Ibaiondoko barrutian, alegia. Zonaldea berroneratze fase batean dago eta Harrobiak agente aktiboa izan nahi du zeregin horretan. Ildo horretan, aniztasuna, laneratzea, aukera berdintasuna edo berrikuntza bezalako kontzeptuak aintzatesten ditu Harrobia BHIPk. Halaber, Harrobiako komunitatea osatzen duten irakasle, ikasle, enpresa eta, oro har, agente guztiek jatorri zabalagoa dute, hots, hein handi batean, Bizkaiko hainbat tokitatik etortzen dira. Hala, Bizkaiko lurraldeak dituen berezitasun kulturalak, ekonomikoak eta sozialak aintzat hartzen ditu.

Berezitasun kultural, ekonomiko eta sozial horiek dira, besteak beste, tradizio industrialeko lurralde batean bizi garela, non zerbitzu sektorea, arian-arian, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den; teknologia aurrerapenak eragin handia izaten ari dira garapen ekonomiko eta sozialetan, maila ekonomikoan balio erantsi bat eskaintzen diote enpresari, maila kulturean, ordea, gizarte egituraketa berria ahalbidetzen dute; gizartean dauden kezken artean, bizi-kalitatea nagusienetakoa da eta bizimodu aktiboa balioesten duen gizartean murgilduta gaude; adierazpide kultural anitzak biltzen dituen gizarte ere bada mundura begira bizi dena, baina, aldi berean, egoera diglosiko batean bizi den gizarte batean, non bi hizkuntza nagusi dauden, baina, tokian toki, batak bestea mendean hartzen du.

Harrobia zentro kontzertatua izaki, EAEko hezkuntza sisteman integratuta dago; beraz, beronen xedeekin bat egiten du. Horrek esan nahi du Harrobiak parte hartzen duela Euskadiko Lanbide Heziketa sisteman dauden egitasmo eta proiektu guztietan, dela berrikuntza arloan, hizkuntza normalizazioaren arloan, proiektu sozialen arloan edota ekintzailertzan, besteak beste. Horretarako Tknikarekin eta lanbide heziketako beste zentro batzuekin batera dihardu lanean.

Bestalde, HARROBIA BHIPk, ikastolen mugimenduaren partaide den neurrian, euskararen sustapena lehenesten du eta lan-munduan euskara normaltasunez erabilia izan dadin bere ekarpena egin nahi du. Horrela, komunitateko kideen artean euskarazko komunikazioa lehenesten da, bai eta normaltasunez tratatu ere, bai ahozko zein idatzizko komunikazioetan, bai irakasle, ikasle, enpresa eta administrazioaren arteko komunikazio guztietan ere.

Gainera, HARROBIA BHIP bigarren mailako kooperatiba bat da, non Asti leku eta Bihotz Gaztea bezalako erakundeekin batera, langile bazkideak dituen. Kooperatiba izaki, Kooperatibismoa sustatzeko helburua ere badu HARROBIA BHIPk, bai langileen partaidetza sustatuz erakundearen bizitzan, bai kooperatibismoa bera suspertuz.

1.1.2. Ibilbidea

HARROBIA BHIP 2001ean jaiotako proiektu bat da. Iniziatiba Bilbo Handiko Ezkerraldeko eskualdean jaio zen Bihotz Gaztea eta Asti Leku ikastolen eskutik. Hasieran 2 ziklo ematen ziren, Informatika familiako Informatika Sistemen Administrazioa eta Zerbitzu soziokulturalen familiako Mendekotasunezko egoeran dauden pertsonen arreta. 2004-2005. ikasturtetik aurrera Kirol Ekintzen Sustapeneko Goi mailako Heziketa Zikloa eta Informatika Sistemen Ustiapeneko Erdi Mailako Zikloa eskaini ziren. LOE zikloen agerpenarekin, Informatika Sistemen Ustiapena Mikroinformatika Sistemak eta Sareak zikloa bihurtu zen. Oraindik orain, 2017. Urtean Kirol Ekintzen Sustapeneko zikloa ez da LOE zikloetara igaro, baina 2018-2019. Ikasturterako LOE zikloan hasiko omen da. 2016-2017 ikasturtean 3D Administrazioa, jokoak eta Ingurune Elkarreragileak eskaintzen hasi zen eta 2017-2018. ikasturtean Marketin eta Publizitatea. Ziklo biak Goi Mailakoak dira.

2010-2011 ikasturteaz geroztik, Kirol Ekintzen Sustapeneko Goi Mailako zikloa arratsaldez ere eskaintzen da, eskaintza partzialaren formatuarekin, hots, hiru urteko zikloa da.

Horrez guztiaz gain, laneratzeko prestakuntza, langileentzako prestakuntza eta Kirol Irakaskuntzak ere eskaintzen ditu HARROBIA BHIPk.

Harrobia ikastola 2011. urtean Bilboko Ibaiondoko barrutian kokatu zen eta Bilbo Handiko biztanleei kalitatezko prestakuntza eskaintzea du xedea; xede hori egun gizartean puri-purian dauden sektoreetan eskaintzen du, hots, industria sortzaileetan eta jarduera fisikoan. Sektore horiek, Administrazioaren esanetan, etorkizun handiena izango duten sektoreen artean daude.

1.2. Hezkuntza-beharren azterketa, ikasleen ikaskuntza-emaitzetan oinarriturik

Ikasleek ikas-prozesuan emaitzak hobetze aldera, tutoretza landu behar da, prozesua komunean jarri eta gutxieneko eginkizunak zehaztuz, eta ikaslearen ibilbidea monitorizatu, ikastolara sartzen denetik ikastola utzi eta handik epe ertainera ere. Hala ere, monitorizazioa ez da nahikoa, beste baliabide bat baizik, kausak aztertu, aukerak eskaini eta orientazio egokia ematea izan beharko dira tutoretza-lanaren ardatzak. Zer esanik ez, ikas-prozesuan metodologia berriak ezartzea Harrobia BHIPk, ezinbestez, eman behar duen urratsa da, progresiboki, harik eta ikastola osora zabaldu arte.

Ikasle eta irakasleen arteko harremanak sustatzea funtsezkoa izan behar du, eta harreman hori arina eta norabide bikoa izan behar da, arazoak lehenbailehen antzemateko eta feedback-a lehenbailehen izateko. Norabide horretan egitura malguak sortu behar dira.

Egun hezkuntza sistema aldaketa metodologiko baten murgildu berri da. Aldaketa horren inflexio puntuan gaude, baina Harrobiarentzat ezinbestekoa izango da aldaketa horretan partaide ez ezik, motor ere izatea, merkatuan dugun kokapenari eutsiko badiogu. Metodologia horren arabera, trebetasun teknikoak ez ezik, zeharkako trebetasun batzuk landu beharko dira. Trebetasun horiek dira, jasotako datuen arabera, enpresek ikasleengandik demandatzen dituzten trebetasunak, eta horiek dira, besteak beste, talde lana, komunikazio-gaitasunak, autonomia, iniziatiba ...

Trebetasun horiek guztiak landu behar dira, baina ebaluatu ere egin beharko dira. Horretarako eskura dauden baliabideak erabiltzea komenigarria izango da. Hori dela eta, Teknikak eskaintzen dituen prestakuntza eta SET bezalako tresnak erabiltzearen aldeko hautua egin behar du Harrobiak.

Metodologia berrien harira, trebetasunetan oinarritutako metodologia hobetsi behar du ikastolak, direla teknikoak, direla zeharkakoak; hori guztia talde lanaren estrategiapean, bai irakasle lan-taldeak sortuz, bai ikasleek taldeka lan eginez. Horrez guztiaz gain, ikasleen balio erantsia bultzatu behar du Harrobia BHIPk, hain zuzen ere ikasleen enpleagarritasuna hobetzen lagunduko dien balio erantsia.

Ikasleen emaitzak, baina, ezin dira hobetu ikasleen parte hartzerik gabe. Hala, zentroak ikasleen parte hartzea sustatu behar du bizitza akademikoan, beraien iritziak, iradokizunak eta ekarpenak baloratu eta erantzuna eman, ikasleak ikastolaren parte sentitu daitezten. Giro ona sustatu behar da ikastolako ikasleriaren artean ikasle eta irakasleen artean, ikasle eta langile ez-irakasleen artean, ziklo desberdinen arteko harremanak sustatu, talde dinamikak antolatuz, zikloen arteko proiektuak sustatuz. Ildo horretan saretzea da estrategia egokia.

Ikasleen prestakuntza hobetuko bada, irakasleek ere prestakuntza jaso beharko dute. Merkatua ezagutu beharko dute, nor bere arloan; horretarako enprekin kontaktuan egon beharko dute. Gainera, prestakuntza beharren diagnostikoa egin eta irakasleak euren gaietan trebatuta egotea bermatu behar da, azken berrikuntzak zein diren jakin beharko dute eta; azken batean, ikastolako ikasleen hobe beharrean izango da.

Harrobia BHIP, arestian esan bezala, kokapen zehatz bat dauka, eremu geografiko batean alegia, eta ingurune horrekin elkarreragin estua dauka, harreman estua, non elkarren arteko interes komunak eta sinergiak egon daitezkeen. Hala, inguruko elkarte, erakunde, enpresa eta instituzioekin harremanetan egon behar da Harrobia BHIP, halaxe lortuko baita proiektu berriak ikastolara erakartzea eta ikastolak kanpoko proiektuetan parte hartzea, ikastola zonaldean, lanbide heziketaren munduan eta Bizkaiko gizartearen aurrean agente aktibo bat izatea eta merkatuan duen kokapenari eustea eta gora egitea, proiektu erreferentziala bihurtu arte.

Gizartearekin harremanetan egotea harago doa. Gizartean indarrean dauden balioekin bat egin ez ezik, balio horiek sustatu eta sustatzeko jarduerak proposatu, aurrera eraman, eta horretarako baliabideak bideratu behar ditu. Horretarako abian dauden programetan plana betetzetik erreferentzialak izaterako jauzia emateko moduan egon behar du Harrobia.

Euskara ikastolaren berezitasunetako bat da. Horri eutsi nahi zaio, horrek ematen baitio nortasuna zentroari, horrek ematen baitie ikasleei, kasu askotan, abantaila konpetitiboa eta horrela bat egiten baitugu gizartean dauden balioekin, kasu honetan gizarte elebidun baten eta ikastola partaide den Euskal Herriko Ikastolak erakundearen balioekin. Horrek euskara eremu guztietara normalizatzerako eraman behar du ikastola, harreman formaletan eta ez-formaletan. Horretarako energiak inbertitu behar ditugu, batez ere harreman ez-formaletan, euskararen presentzia hutsaren hurrengo den tokietan. Bide batez, gizarteari jakinarazi behar zaio euskararen aldeko hautu garbia egiten dugula.

1.3. Ikastolaren hezkuntza-praktika orokorraren eta antolakuntzaren azterketa

Orain arteko ibilbidean ezjakintasun handia egon da ondorengo urteetara begira. Egun esan dezakegu datozen bost urteetarako plana, gutxien-gutxienik eginda daukagula. Horrek epe ertainerako baliabideen beharra aurreikustea eta plantilla egonkortzea ahalbidetzen du, ez baita aldaketa handirik espero datozen urteetan. Horrek eraman behar gaitu egonkortasunetik begira aurrerapauso esanguratsuak ematera.

Ilido horretan, Harrobia BHIP Lanbide Heziketako zentro integratua izateko bokazioa izan behar du. Hartara, lanbide Heziketako eremu guztietan presente egoteaz gain, eremu bakoitzean premia batzuk ase beharko ditu:

- Datozen urteetan ziklo guztiak egonkortu eta gelak beteta egon beharko dira. Halaber, emakumeen presentzia zikloetan, oro har, bermatu ez ezik, parekidetasuneranzko urratsak ere eman beharko ditu Harrobia BHIPk.
- Laneratzea Harrobiaren xede nagusietakoa da; zentzu horretan, Harrobiak laneratze efektibo bat lortzeko urratsak eman behar ditu, horretarako baliabide berriak ipinita eta proiektu berrietan murgilduta. Era berean, helburu hori duten arloei buruzko datu-bilketa sistematikoari ekin behar dio. Xede berari eutsiz, ikasle-enpresa-ikastola hirukiaren arteko harremanak estutu, sendotu eta egonkortu behar ditu, ikasleen laneratze efektiboan emaitzak lortuko badira.
- Lanerako lanbide heziketako ikastaroei dagokienez, Harrobia BHIPk Administrazioak ezarritako eskakizunak bete beharko ditu, ikastola bera kokatuta dagoen ingurunearekin kontaktuan egon behar du eta merkatuak ase behar dituen beharrak ezagutu behar ditu. Helburu nagusia ikastola lan-merkatuaren eskaintza eta eskariaren arteko zubi-lan eraginkor bat egitea izan behar da; horretarako eskaintzaren eta eskariaren beharrak ezagutu, merkatuaren aldiroko diagnostikoak egin eta inizatibak eskaini beharko ditu. Horrek harreman egonkorak ezartzea eskatzen du, Administrazioarekin, enpresekin, eta, nola ez, laneratze-bidean dauden interesdunekin. Gauza bera gertatzen da dagoeneko lanean diharduten pertsonekin eta lan egiten duten enpresekin, harreman iraunkorra funtsezkoa izango da merkatuaren tendentziak, beharrak eta gabeziak antzemateko orduan.
- Harrobia BHIP osatzen duten pertsonen komunitatea ez da, arestian esan bezala, komunitate isolatu bat. Hori dela eta, gizartean indarrean dauden balioekin bat egin behar du Harrobiak, bai eta beraren parte diren beste pertsona guztiek ere. Beraz, Harrobiak abian dauden proiektuetan parte hartu behar du, ikasleen artean ekintzailtza sustatu behar du, horretarako dauden egitasmoetan parte hartze aktiboa erakutsiz, gainera. Harrobiak genero berdintasuna, jasangarritasuna, hizkuntz normalizazioa eta antzeko balio sozialak ere sustatu behar ditu, bai eta

gizarte mailan, dagokion arloan, bere hondar alea ipini ere. Ez dezagun ahantzi etorkizuneko langileak hezten ari garela, eta beraiengan gizarteak balioesten dituen balioak sendo errotuta egon beharko dira. Bide horretan, baina, Harrobiak BHIPk beharrezko deritzon baliabide guztiak ipini beharko ditu eta hainbat egitasmo martxan jarri.

- Harrobia BHIPren bokazioa eskaintzen duen zerbitzua kalitate handikoa izatea izan da. Horregatik, aspaldidanik ekin zion ISO araua egiaztatzeari. Orain ISO berria eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzak sustatutako eta babestutako kudeaketa-, autoebaluazio- eta hobekuntza-eredua lortzeko bidean gaude eta bide horri eustea ezinbestekoa izango da. Ez da baztertu behar beste egiaztapen batzuk eskuratzea, hala nola, ISO 14000 edo, eskola jasangarriaren egiaztagiria.

2. Printzipioak, balioak eta nortasun-ezaugarriak

Honenbestez, egun, HARROBIA BHIPk Goi Mailako hiru ziklo eskaintzen ditu, Kirol Ekintzen Sustapena, 3D Animazioak, Jokoak eta Ingurune Elkarreagileak; Erdi Mailako ziklo bat, Mikroinformatika Sistemak eta Sareak; Goi mailako ziklo bat eskaintza partzalean, Kirol Ekintzen Sustapena. Zikloez gain, laneratzeko prestakuntza ikastaroak, langileentzako prestakuntza ikastaroak eta Kirol prestakuntza ere eskaintzen dira.

Hori guztia dela eta, HARROBIA BHIPren EGINKIZUNA Euskal gizarteari zerbitzatzea da taxuzko langileak prestatuz; bidenabar, pertsona horiei laneratzeko aukerak eman eta lan-bizitzan zehar hazten lagundu nahi die. Xede hori proiektu kooperatibo batean oinarritzen da, berrikuntzari so egiten diona, enpresa-, kultur- eta gizarte-ingurunearekin harremanetan dagoena, hizkuntzaren normalizazioarekin eta egungo gizarteak dituen erronkekin erabateko konpromisoa duena.

IKUSPEGIari dagokionez, HARROBIA BHIPn Lanbide Heziketako zentro integratua izan nahi dugu:

- a) Kirolaren eta industria sortzaileen sektoreetan balioa sortzen duena. Horretarako, lanbide-prestakuntzan, euskaran, eskaintzen duten orientazio zerbitzuan eta ezagupenak, trebetasunak eta errekurtsoak partekatzen dituen elkarlan-eredu batean oinarritzen gara.
- b) Ezagutu gaituztenek eta bertoko instalazioetatik igaro direnek guregana etortzeko aholkua emango duten pertsonak biltzen dituenak, eskaintzako tratu pertsonalizatuagatik, euskaragatik eta bertan lan egiten dugun guztiok erakutsitako profesionaltasunagatik eta engaiamenduagatik.
- c) Inguruko beste agente batzuekin batera hurbileko erronkei eta beharrezaneiei erantzuna emateko ahaleginetan diharduena.

Harrobia BHIPk sustatzen dituen BALIOAK honako hauek izango dira:

1. **Etikan oinarritutako kudeaketa eta antolaketa.** Errespetua eta tolerantzia elkarbizitzaren oinarri den mundu honetan, ikastola bera kokatuta dagoen zonaldean integratuko bada, inklusibotasuna, ekitatea, ikasleekiko errespetua, bizikidetzatza, gizabidea eta, kultura-artekotasuna izan beharko dira elkarbizitzaren muina. Horrek esan nahi du partekatutako ezagupenak, ingurugiroarekiko errespetua, lan arriskuen prebentzioarekiko kezka eta hezkidetzatza aintzat hartzea.

Aipatu balioekin bat egin ez ezik, genero berdintasuna, jasangarritasuna, aniztasuna, hizkuntza normalizazioa bezalako eremuak ere jorratuko ditu eta horiek xede duten planak martxan ipiniko ditu.

2. **Autonomia eta banakako erantzukizuna.** Autonomia eta erantzukizuna enpresek gehien baloratzen dituzten jarrerak dira, besteak beste. Hartara, ikastolak bere langileen artean trebetasun horiek baloratzeaz gain, ikasleek trebetasun horiek garatzeko baliabide

metodologikoak ipiniko ditu. Askatasuna, erantzukizuna eta justizia. Askatasuna autonomiaren oinarritzko ezaugarria izaki, askatasun arduratsua sustatzeko metodologiak martxan ipiniko ditu, taldeak modu autonomoan jardun dezaten.

3. **Solbentzia profesionala.** Ikastolak merkaturatzen duen produktuaren ezaugarri nagusia behar du izan, geure ikasleen enplegarritasuna maila altuan egoteko, taxuzko langileak izan daitezten. Hortaz, esfortzua eta ondo egindako lana ezinbestekoak izango dira; garapen pertsonala eta profesionala norberaren esfortzutik etorri behar baita. Hori dela eta, irakasleak eredu izan beharko dira zeregin horretan, ikasleek proaktibitate handia erakutsiko badute. Zentzu horretan ikasleen gaitasun profesionala sustatuko da etengabeko prestakuntzaren bitartez. Horrela, zentroak berrikuntzarekin erabateko engaiamendua izango du eta.
4. **Talde lana pertsona aberasteko maila pertsonalean eta profesionalean.** Komunitate osoaren parte hartzea sustatu nahi da, ikastola anitza izango bada. Bide horretan lankidetzaren sustatuko da, talde-lana, eta hori ahalbidetzen duten metodologiak ahalbidetuko dira. Bide batez, sinergia talde-lanaren arrakastarako gakoa delakoan, sinergia sortzeko baliabideak eta espazioak komunitate osoaren eskura jarriko ditu.
5. **Sen kritikoa eta sortzailea.** Berritzaileak izan nahi dugu, baina bide horretan berritasunak errotuta dauden planteamenduetatik ihes egin behar du, arauak kolokan ipini eta munduari pentsamolde zabal eta ikuspuntu anitz batetik so egin.

3. Helburuak eta lehentasunak

1. **Ikasleek autonomoki eta arduratsu jokatzeari lanean.** Taxuzko langileak sortu behar ditugu, arduraz jokatzeko dutenak, pentsamolde kritikoarekin jokatzeko dutenak, lan-mundu aldakor batean murgilduko badira.
2. **Ikasleek enpleagarritasun maila altua dutela bermatzea.** Lan-mundua inflexio-puntu batean dago, lan-merkatuaren paradigma berriak langile balioanitzak, ikasteko prestutasun handia dutenak, inizatiba handikoak eta aldaketetara egokitzeko prest daudenak eskatzen ditu. Asmo horrekin Harrobiako ikasleek lan-merkatu horretan beren kasa ibiltzeko trebetasun nahikoak dauzkatela bermatuko du.
3. **Langile proaktiboak sortzea.** Harrobiako komunitateko partaideok gizartearen aldaketaren eragile izan nahi dugu; bide horretan pertsona proaktiboak izateko trebetasunak landu ez ezik, horren aldeko konpromisoa ere hartzen dugu, arlo guztietan.
4. **Gatazkak konponketa errespetutik eta tolerantziatik etorri behar delako konbentzimendua zabaltzea.** Gatazka modu positiboan munduaren eraldaketarako tresna baliagarria dela aintzat hartuta, gatazkaren konponketarako tresnak eman behar ditu. Bidean, asertibitatea sustatuko da komunitatean.
5. **Ikasleek pertsonen arteko berdintasunaren balioa aintzatestea.** Pertsonen balioa nagusi da, sexu, arraza, kultura edo erlijioa gorabehera. Xede horrekin proiektuak ipiniko dira martxan eta dagoeneko martxan diren egitasmoetan parte hartuko du.
6. **Gizarte inklusibo baten balioak ikasleengan errotzea.** Berezitasunak antzemateko eta berezitasun horiek integratzeko baliabideak jarriko dira.
7. **Kultura-artekotasunaren aberastasuna sustatzea.** Kultura-aniztasuna aberasgarriatzat hartu eta hori nabarmendu egingo du.
8. **Ikasleentzako artean Harrobiako komunitatearen parte direlako sententzia errotzea.** Harrobiako komunitatea langileek, ikasleek, enpresek eta gurasoek osatzen dute.
9. **Ikastolako komunitate osoa gizarte baten partaide sentiarazi, ardurekin eta erantzukizunekin.** Ikastola ingurune batean kokatuta dago eta ezin dio inguruneari bizkarra eman, gizartearen indarrean dauden kezkak bereganatu behar ditu, eta proiektu horietan agente aktiboa izan. Halaber, bere jardueran nagusia langileen prestakuntza izaki, inguruko ehun ekonomikoaren berri

izan beharko du, bertako agenteekin harremanetan egon eta merkatuaren beharrak ezagutu beharko ditu.

4. Curriculumaren eta antolamenduaren esparruetako aukerak

4.1. Curriculumaren esparrua


Harrobiak hezkuntza sisteman gertatzen ari diren aldaketekin bat egiten du eta ikuspegi holistiko batetik ulertzen du mundua. Hala, sistemak bere osotasunean ulertuak izan behar dira, elkarren artean harremanetan dauden sistemak halaxe aztertu behar dira, guztiaren funtzionamoldea ulertuko bada. Hori dela eta, Lanbide Heziketan ETHAZI metodologiaren aldeko hautua egiten du.

4.1.1. Aukera metodologikoak:

- **Erronka bidezko ikas-prozesua.** Ikasgaiak elkarren artean dauden diziplinak dira, eta beraien arteko muga zorrotzak desagertu egiten dira eta diziplina anitzak integratzen dituzten proiektuak lantzen dira. Horrela, ikasgaien arteko mugak lausotu eta desagertu egiten dira.
- **Errealitatean oinarritutako proiektuak.** Erronkak arazo errealean planteamendutik etorriko dira, eta erronkaren prozedura arazoari irtenbideak proposatzea, irtenbidea gauzatzea eta emaitza aurkeztea izango da.
- **Ikaslearen autonomia.** Ikasleek autonomia daukate arazo baten aurrean aukerak planteatzeko, bai eta aukera horiek gauzatzeko ere. Ondorioz, ikaslea bera, bere ikas-prozesuaren jabe bihurtzen da.
- **Talde lana.** Lan egiteko estrategia talde-lanarena da. Taldeak erabateko autonomia izango du eta talde-erantzukizuna sustatuko da. Era berean, banakako erantzukizuna talde barruan ulertuko da, hots, ikasle bakoitzak bere taldearen partaide den neurrian taldearen aurrean bere eginkizunen erantzulea da.
- **Irakaslearen rola aldaketa.** Irakaslea ikas-prozesuaren eragile bakarra izatetik laguntzaile izatera igarotzen da, eta ikaslearen ikasketa prozesu bat bezala ulertuko du. Irakasleak, rol horretan, laguntzaile edo aholkulari moduan jardungo du, taldearen autonomia errespetatuz.
- **Gizarte-balioak txertatzea.** Gizarte-balioak ikas-prozesuaren beste parte bat bezala txertatuko dira curriculumean eta, bide batez, erronketan, egungo errealitatearen isla bezala:
 - ✓ **Jasangarritasuna.** Munduaren premiak eta mugak aintzat hartzen ditu, naturaren baliabideak mugatuak direla onartzen du, ikuspegi global batetik aztertzen du egungo planetaren egoera, aniztasunari balio erantsia aitortzen diona. Ikuspegi kritikoa sustatzen du eta etorkizuneko ikuspegia lantzen du. Prozesu bezala ulertzen da eta curriculumean

txertatuta dago eta, ondorioz, ebaluatu egiten da. Ikasleen parte hartzea sustatzen da, ideiak proposatzeko aukera ematen zaie eta abaguneak aurrera eramateko baliabideak eskaintzen dira. Komunitate osoaren parte hartzea balioesten du.

- ✓ **Hezkidetzeta eta genero-berdintasuna.** Bazterkeria arbuia eta berdintasuna arlo guztietan aplikatzen du. Kulturaren, arrazen, sexuaren eta erlijioaren aniztasunaren aberasgarritasuna balioesten du. Estereotipoak identifikatzen ditu eta gai da beroriek gabeko diskurtso bat eraikitzeko. Genero berdintasunaren ikuspegitik, rol bereizkeriarik gabe jarduten du, hizkuntza egokiro erabiltzen du eta genero-indarkeriaren aurkako jarrera aktiboa dauka.
- ✓ **Kultura-artekotasuna.** Kultura artekotasuna aberasgarritzat jotzen du. Kulturen arteko topaketak sustatzen ditu eta kultura-artekotasuna balioesteko inizatibak garatzen ditu. Gure gizartean bizi diren beste kultura batzuetako partaideen bazterkeria-egoeraz jabetzen da eta abegikortasunezko jarrera hartzen du. Beste kultura batzuetako partaideak euskal kulturaren integratzen laguntzen du eta horretara zuzendutako proiektuak martxan ipintzen ditu.
- **Teknologia berriak.** Ikasleria etorkizuneko gizarterako hezten ari garen neurrian, zikloetan eta lanerako prestakuntzan teknologia berriak landu ez ezik, oinarrizko tresna izango dira, zikloak ziklo, oinarrizko teknologia ezagutzak bermatuko dira, maila orokorrean, ofimatikan, sare sozialetan, bideo-edizioan, software pribatiboan zein librean. Ikasleak egingo du ondorengo hautua sw baten edo bestearen alde. Horrez gain, ziklo bakoitzak bere espezialitateari dagokion softwarean trebatuko da. Horretarako instalazio eta ekipamendua egokia dagoela bermatuko da.
- **Ikasleak partaide aktiboak izatea komunitatean.** Komunitateko partaide sentituko badira, ikasleek parte hartu beharko dute zentroaren bizitzan. Hala, zentroak baliabideak eskainiko dizkie ikastolarenak berarenak diren proiektuetan ideiak plazaratzeko, proposamenak egiteko, antolaketan parte hartzeko eta proiektu horiek aurrera eramateko baliabideak eskainiko dizkie. Partaidetza hori sustatzeko antolaketa-eredua egokituko da.
- **Kalitatezko irakaskuntza bermatzea.** Kalitate sistema ezarriko da eta aldiro aztertu eta berretsiko da. Horretarako egin beharreko auditoriak egin egingo dira eta Kalitatezko irakaskuntzan ikastolako partaide guztiek duten ardura azpimarratuko da, hots, ardura kolektiboa dela.



4.1.2. Ebaluazioa.

Ikas-prozesuaren zutabeetako bat izango da. Prozesutat hartukoa izango da. Talde-lanaren estrategiari lagunduko dio ebaluaziok ere ikasleak partaide izango dira ebaluazio-prozesu horretan; horrek esan nahi du ikasleari ebaluazio-bileretan parte hartzeko aukera emango zaiola bere gelako ordazkeriaren bitartez. Ebaluazio egokia egite aldera, ebidentzia egokiak alde zuzenetik zehaztuko dira.

Halaber, ebaluazioan ikasgaiarekin/ erronkarekin lotutako trebetasun tekniko batzuk ebaluatuko dira, batzuk lanbideari datxekionak, beste batzuk zeharkakoak; hizkuntza trebetasun batzuk irakaskuntza eleanitzari datxekionak eta zeharkako trebetasun batzuk, jarrerari datxekienak. Ikasleak taldean jokatzeko duen rola bilakaeraz jabetzea eta kasuan kasu, neurri zuzentzaileak hartzeko aukera emango zaio. Horretarako ebaluazio estrategiak eta baliabideak anitzak izango dira: Lortutako emaitzak hurrengo urratsaren abiapuntua izatea bilatuko da.

- a) Auto-ebaluazioa. Ikasleek talde-lanaren strategiaren baitan, nork bere ekarpena neurtu beharko du talde bateko partaide den neurrian eta taldean jokatzeko duen rola gainean. Bide batez, ikaslearen motibazioa areagotzea espero da eta ikaslea bere prozesuaren jabe delako sentipena sustatu nahi da. Halaber, ikaslearen autonomia sustatuko da.
- b) Talde-ebaluazioa. Talde-erantzukizuna sustatze aldera, talde-lana estrategiatzat hartua, talde-ebaluazioari ere protagonismoa emango zaio. Hala, talde-koheretza eta gatazken kudeaketa landuko dira.
- c) Irakaslearen ebaluazioa. Irakasleak bideratuko du ebaluazioa amaierako emaitzak lortu diren alaez egiaztatzen, eta horretarako alde zuzenetik irizpide batzuk finkatuko dira. Ebaluazioa prozesu bat dela zainduko du eta alde zuzenetik ebaluatuko diren errubrikak diseinatuko ditu; beraz, irakaslea ere partaide aktiboa izango da ebaluazioan.
- d) Errubrika sistema. Ebaluatzeko metodologia errubriketan oinarrituko da, eta horretarako zentroak eskura dituen baliabide digitalak erabiliko ditu.

4.1.3. Hezkuntza eskaintza.

Harrobia BHIPren eskaintza jarduera fisikoan eta industria sortzaileetara bideratuko da. Ikasleek bi arlo horietan curriculum egiteko aukera integrala eman nahi die. Zentzu horretan, erdi mailako Mikroinformatika Sistemak eta Sarretako ikasleentzako jomuga goi mailako ikasketak egitera izan behar delakoan gaude. Ibilbidea geurekin egiten jarraitu nahi izanez gero, Marketin eta Publizitateko edo 3D Animazioak, Jokoak eta Ingurune Elkarreragileak Goi Mailako zikloei buruzko orientazioa emango zaie.

Zikloak bukatutakoan, etengabe prestatzeko eta laneratzeko ikastaroak ere eskainiko dira aipatutako bi arloetan. Horretarako Lanbideek baimendutako zentroa izango gara. Ikastolak ikasle guztiengan

langile hiru eledunak sortu nahi ditu, behar besteko hizkuntza trebetasunak dauzkatena lan-merkatuan sartzeko eta bertan mantentzeko.

Hasierako Lanbide Heziketa – Heziketa Zikloak

1. **Erdi mailako Mikroinformatika Sistemak eta Sareak.** Enpresetan Informatika Sistemaren teknikari, Ekipo informatikoak instalatzeko eta konpontzeko teknikaria eta Urrutiko laguntzaile teknikaria (erabiltzaileen laguntza zentroetan) lanetan aritzeko gaitasuna ematen duen zikloa da.

Heziketa zikloaren lehenengo urtearen helburua ikaslea heziketa sistemaren barruan jarraitzeko motibazio nahikoa duela bermatzea izango da. Bigarrenean, berriz, enpresan egingo dituen praktikan berme nahikoa duela erakustea.

2. **Erdi mailako Natur Ingurune Kirok ekintzen Gidaritza.** Xedea goi mailako zikloetara igarotzea izango da. Zentzu horretan, ikaslearen motibazioa landuko da espresuki, ikas-prozesua jarraitu dezan.

3. **Goi Mailako Kirok Ekintzen Sustapena.** Enpresetan Entrenatzaile pertsonala, Aisiaren kudeaketa edo kirol-jolasa, eskolatik kanpoko jardueren koordinatzailea, osasuna hobetzeko zerbitzu-emailea, monitorea ikastetxean, kiroldegietan edo gimnasioetan, kirol hastapeneko begiralea, Eskola Kiroleko kudeatzailea, kirol-ekintzen zuzentzailea eta kudeatzailea, musika zein musika gabeko taldeko ekintza zuzenduen gidatzailea, uretako soroslea.

Zikloaren xedea ikasleek zeregin horietan profesionaltasunez lan egitea izango bada ere, ikasten jarraitzeko aukeretan ere orientatuak izango dira ikasleak, besteak beste, Fisioterapiak, IVEF edo Magisteritza bezalako ikasketetara.

Ikasketa osagarri bezala, ikastola Kirok Irakaskuntzen Ikastola Baimendua den legeak, ikasleek gurean osatu ahal izango dute beraien prestakuntza.

Goi mailako Kirok eskaintza modu partzialean ere eskaintzen da. Zikloak xede berak dauzka.

4. **Goi mailako Marketin eta Publizitatea.** Xedea lan-merkatuaren solbentzia handiz heltzea da honako lanbide hauetan: Produktu-buruaren laguntzailea, Marketin-teknikaria, Publizitate-teknikaria, Harreman publikoetako teknikaria, Marketin- eta komunikazio-gertaeren antolatzailea, Publizitate-enpresetako baliabide-laguntzailea, Komunikabideetako emanaldien kontrolatzailea, Merkatua eta iritzi publikoa aztertzeko teknikaria, Landa-laneko teknikaria, Inkestagileen ikuskaria, Inkesta- eta zentsu-agentea, Merkatuak ikertzeko datu-kodetzailea.
5. **Goi mailako 3D Aplikazioak, Jokoak eta Ingurune Elkarreragileak.** Xedea solbentzia profesional nahikoa izatea izango honako lan hauetan berme guztiekin jarduteko: 2D eta 3D animatzailea, Bereizgailua, 3 D modelatzailea, Grafista digitala, Eredu birtualen sortzailea, 3D efektu berezietako teknikaria, Ikus-entzunezko multimedia-integratzailea, Ikus-entzunezko multimedia-aplikazio eta -produktuen garatzailea, Ikus-entzunezko multimedia-eduki elkarreragile eta ez-elkarreragileen editorea, Multimedia-sistema eta -errealizazio teknika,

Prestakuntza duala

Laneratzeko tresna izan behar du. Ikastolak industria sortzaileetako eta kirol jardueretako enpresekin lankidetzan jardungo du eta Harrobiako ikasleek eskarmentu profesionala eta enpleagarritasuna hobetu dezaten lana eta ikasketak uztartzeko egitasmoa sustatuko du. Bide horretan ikasleei baliabideak eman beharko zaizkie curriculumari dagozkion ikasgelako edukiak eta lantokian ikasitakoak barneratu ditzaten.

LPK

Harrobiako ikasle guztiek, beraien prestakuntzaren atal bezala, esperientzi profesional bat izan behar dute. Harrobia ikastolak curriculumari dagozkion ikasgelako edukiak osatzeko beharrezko irizten dien lanpostuei erreparatuta ikaslearentzat egokien deritzen enpresetan egingo da lantokiko prestakuntza. Enpresak hautatzeko orduan praktikak euskaraz egitea ere aintzat hartuko da.

Eskolaz kanpoko jarduerak

Ikas-prozesuaren osagai bezala, ikasleek jardungo duten sektorearen lan-merkatuarekin harreman estua izan behar dute. Beraz, irakasleek irteerak, zentrotik kanpoko lan-esperientziak, erakusketak eta, oro har, ikaslearentzat bere ikas-prozesuan lagungarri gerta dakioken edozein aktibitatean parte hartzea sustatuko da.

Lanerako Lanbide Heziketa:

Langileentzako prestakuntza - Hobetuz


Langileen etengabeko prestakuntza arestian aipaturiko arloetan eskainiko da, hau da, industria sortzaileetan eta kirol-jardueretan. Eskaintza sektore bi horietako merkatuan antzematen diren beharretan diseinatuko da eta sektoreko langileei zuzenduko zaie. Geure ikasle ohiei ere zuzenduko zaie, laneratze maila eta solbentzia profesionala mantentze aldera.

Langabetuentzako prestakuntza - Lanbide

Laneratzeko ikastaroak ikastola kokatuta dagoen inguruneko biztanleei eta industria sortzaileetan eta kirol jardueretan lan egiteko interesa erakuts lezaketen langabetuei zuzenduko zaie. Horretarako, ikastolak orpoz orpo egingo du lan auzoko Lanbiderekin eta Lanbide ziurtagiriak eskainiko ditu, lanbide ziurtagiriaren katalogoaren arabera.

Araubide Bereziko Kirol Irakaskuntzak.

Harrobia Kirol irakaskuntzarako ikastola baimendua den heinean, kirolarien prestakuntzan eta ahalduzko profesionaletan sakondu nahi du. Hori dela eta, hainbat federaziorekin lankidetzan hainbat kirol esparrutan jarduteko aukera eskaini behar du.



4.1.4. Ikasleen aniztasunari erantzutea.

Harrobiak ikasle guztien parte hartzea bermatuko du bai eta horretarako beharrezko baliabideak jarriko ere. Ikasleen hezkuntza-beharren arabera ikasleen arrakasta bermatzea izango da jomuga. Zeregin horretan arreta pertsonalizatua baliatuko da, ikaslearen ikas-prozesua monitorizatzeko, gabeziak antzemateko eta laguntza emateko.

Aniztasunari erantzuteko gogo horri jarraituz ere, ikaslearen ikas-prozesu autonomoan egiten diren esku hartzeak ikaslearen hobe beharrez egingo dira, bere berezitasunak aintzat hartuta, errespetutik eta inklusibitatea lehentsiz.

Genero berdintasuna. Harrobiak parekidetasuna sustatuko du eskaintzen dituen zikloetako eremu profesional guztietan eta, oro har, gizarte osoan. Bide batez, sexuaren araberako rolen banketa baztertu eta emakumeen parte hartzea sustatuko du. Genero biolentziaren kontrako jarrera argia erakutsiko du eta partaide aktiboa izango da emakumearen laneratzean, gizarteratzean eta bere eskubideen defentsan. Bide horretan, Emakunderen zentro lagungarria izateko urratsak emango ditu eta norabide horretan inizatibak abiatuko ditu.


4.1.5. Orientabidea eta tutoretza.

Ikastolako ikasleen laneratzea izango da, solbentzia profesionala bermatuz. Hala, orientazio zerbitzua eraginkorra izango bada, arreta pertsonalizatua eskaini beharko du, eta ikaslearen interes profesionalak lehenetsi ibilbide profesional bat diseinatzeko orduan. Ikaslearen prestakuntza prozesu bat bezala antzeman beharko du eta bizi osoan zeharreko prestakuntzaren beharrez jabetu beharko da ikaslea. Azken erabakia ikaslearen esku geldituko bada ere, orientatzailearen lana alternatibak eskaintzea izan beharko da.

Ikaslearen lan-ibilbidearen jarraipena zikloaz harago doa, ondorengo prestakuntzan agente aktiboa izan baitaiteke ikastola. Hori dela eta, ikasleen ikastolarekiko identifikazioa sustatuko da, ikastola bera erreferentea izan dadila ikasle horrentzat. Horrekin batera, eskura dauden baliabideak erabilia eta ikaslearen autonomia lehenetsiz, bere ibilbide profesionalaren jarraipena egingo da. Ondorengo ekinbideak ikaslea lan-munduan edo laneratze bidean dagoela bermatzera zuzenduko dira.

Tutorearen rola ikas-taldearen kohesioa, ikaskideen inklusibotasuna bermatzea, ikas-prozesuaren bilakaera zaintzea eta familiekiko harremanak mantentzea izango da. Hori guztia zikloko gainerako irakasleekin koordinazioan egingo da.

Gurasoekiko harremana. Tutorea izango da, hala behar izanez gero, gurasoekin harremanetan jartzeko ardura izango duena. Harreman hori ikaslearen autonomia, adina eta Datuen Babeserako Legeak xedatzen duena aintzat hartuta egingo da, beti ikaslearen hobe beharrez.



4.1.6. Ikastolaren hizkuntza-plangintza.

Ingurune eleanitz batean bizi garela aintzat hartuta, ikastolak euskararen aldeko hautu garbia egiten du. Hortaz, euskara ikastolan komunikatzeko hizkuntza nagusia izango da, esparru formal zein ez-formaletan, ikastola osatzen dugun komunitateko kide guztien artean. Eskolak euskaraz emango dira zikloetan, eta laneratzeko ikastaroetan eta etengabeko prestakuntzaren kasuan, ikastaroak zein hizkuntzatan emango diren eskaerak adieraziko badu ere, ikastolak euskararen gutxieneko presentzia bermatu beharko du eta baliabideak ipiniko ditu ikastaro horiek euskaraz egin daitezen. Ikastola agente aktiboa izango da euskararen normalkuntzan industria sortzaileetan eta kirol jardueren sektorean, Bilbo Handian eta, oro har, lanbide heziketan. Horretarako Hizkuntza plana diseinatuko da, euskararen normalkuntzan dauden egitasmoetan parte hartuko du eta ekimenak ipiniko ditu martxan hori lortzeko.

Hizkuntzen trataera integrala eta integratua. Eleanitzasuna hizkuntzen trataera integrala eta integratuaren ikuspegitik egingo da, hots, irakasle guztiek ikasleek hizkuntz trebetasunak barneratzen dituztela zaindu behar dute eta, hizkuntzak subjektu biziak direlako konbentzimenduan, gizartearen isla diren neurrian, elkarren arteko zubiak eraikiko ditu.

Hizkuntzak balio erantsi bezala. Hizkuntzek balio erantsi bat gaineratzen diote ikasleari. Beraz trebetasun profesional bat bezala ere ulertuko da hizkuntza trebetasunak eta eleanitzasuna. Trebetasun komunikatiboen barruko beste trebetasun bat bezala.

4.1.7. Prestakuntza eta berrikuntza.

Berrikuntza proiektuek ikasleei ateak zabaldu behar dizkiete lan-munduarekin kontaktuan egoteko. Ildo horri jarraituz, honako egitasmo hauetan parte hartzea aurreikusten da:

- Enpresen eta ikasleen arteko topagunea: enpresek arazoak planteatzen duten foroa. Ikasleek parte hartzen dute soluzioak emanez eta, enpresa konforme badago, proiektuan murgiltzeko aukera dute ikasleek.
- Enpresen eta ikastolaren arteko topagunea: industria sortzaileen topagune batean partaide izan behar du Harrobiak. Bertan sektoreko beste zentro batzuekin elkarlanean enpresei zerbitzuak eskaintzen zaizkie, baliabideak partekatuz.
- Berrikuntza: berrikuntza agentziek eskaintzen dituen proiektuetan parte hartzeko prestutasuna erakutsiko du Harrobiak. Halaber, ikastolan garatzen diren proiektuak erakusgai egongo dira berrikuntzan diharduten erakundeen azoketan edo ekitaldietan, komunitateari ere partaide egin behar baitzaizkio zentroan egiten diren proiektuak.
- Arloko enpresekiko elkarlana: Teknologia berrien alorreko elkargoetan parte hartu beharra dago. Horretan parte hartzeak merkatuarekin kontaktuan egotea eta hobeto ezagutzea ekar

dezake, bai Mikroinformatika Sistemak eta Sareak zikloarentzat, bai 3D Animazioetako, Jokoetako eta Ingurune Elkarreragileetako zikloarentzat.

- Ekintzailletza: ikasle eta ikasle ohiei irtenbide profesoinala ematerako orduan ekintzailletza beste alternatiba bat behar du izan. Zentzu horretan, ikastolak nor bere enpresa sortzeko bidean diren ikasle, ikasle ohiei eta inguruneke beste edozein interesduni zuzendutako ekintzailletza zerbitzua eskainiko du, horretarako hezkuntza sailetik eskura dauden baliabideak erabiliz. Gainera, urtean zehar ekintzailletza sustatzeko ekintzak antolatuko dira. Baliabide horiek izango dira:

Ekintzailletza-zerbitzua: enpresak sortzeko bidean laguntza emateko zerbitzua. Zerbitzu hori Garapen Agentziekin elkarlanean egingo da, eta, horren bitartez, ekintzaileak ikastolako instalazioetan atondutako espazioa erabiltzeko aukera izateaz gain, aholkularitza profesional bat izango dute. Zerbitzu honen berri ikastalde guztiei emango zaie, zikloetan zein bestelako prestakuntza-ikastaroetan.

Ekintzailleta ikas-metodologia bezala: Zikloetan Enpresa eta Ekimen Ekintzailea lantzeko ikasgaiak ekintzailletzarekin erlazionatutuako trebetasunak landuko dira modu praktiko batez.

- Gizarte-proiektuak. Ikastolak duen kokapen geografikoa dela eta, zentroak ezin dio muzin egin zonaldean dauden potentzialitateei eta arazoei. Hori dela eta, ingurunean dauden proiektu hobiak ezagutzeko eta beroriek garatzeko baliabideak ipiniko dira eta auzoan lanean diharduten beste erakundeekin eta Administrazioarekin elkarlanean jarduteko zubiak eraikiko dira. Bestela esanda, auzoaren birsortzean agente aktiboa izan behar du Harrobiak.

4.2. Antolamenduaren esparrua

Harrobia BHIPren funtzionamendu egokirako antolamenduan hiru atal bereizi dira. Lehenengo atala kudeaketari dagokiona da, bigarrena partaidetzari eta bizikidetzari dagokiena da eta hirugarrena prestakuntzari.

4.2.1. Ikastetxearen antolaketa, funtzionamendua eta kudeaketa

Harrobia Ikastola aberasteko asmorik gabeko bigarren mailako kooperatiba bat da. Bigarren mailako izaki, bazkide batzuk, beraien aldetik ere, kooperatibak dira; horiez gain, zenbait langile ere bazkide dira. Hori dela eta, hiru organok osatzen dute: Kooperatibako Asanbladak, Artezkaritza Kontseiluak eta Zuzendaritzak.

- **Kooperatibako Asanblada:** ikastolaren organo gorena, da eta 38 pertsonak osatzen dute; horietatik 17 Asti Leku ikastolaren izenean, 13k Bihotz Gaztea ikastolaren izenean, 6 bazkidek eta aldi berean langilek eta erakunde kolaboratzaileetako ordezkari bana (bi erakunde). Urtean behin biltzen da eta bere eginkizunen artean daude, besteak beste, Artezkaritza Kontseiluko kideak izendatzea, urteko kontuak onartzea, estatutuen aldaketa onartzea eta urteko kudeaketa onartzea.
- **Artezkaritza Kontseilua:** zazpi pertsonak osatutako organoa da, lehendakari bat, lehendakari orde, idazkari bat eta 4 batzordekidek osatua; bileretan ikastolako zuzendariak ere parte hartzen du. Bere eginkizunen artean daude, besteak beste, Kooperatibako asanblada deitzea, plan estrategikoa onartzea, kudeaketari dagozkien erabaki potoloak hartzea eta zuzendaritzaren lana ikuskatzea.
- **Zuzendaritza:** ikastolaren eguneroko funtzionamenduaz arduratzen den organoa da. Bere eginkizunen artean daude, besteak beste, eguneroko erabakiak hartzea, asanbladaren aurrean kudeaketa plana eta kontuak aurkeztea, partaidetza, bizikidetzari eta prestakuntza organoak dinamizatzea.



4.2.2. Partaidetza eta bizikidetzatza

Bi atal bereizten dira: batean ikastolak eskaintzen dituen zerbitzu komunak biltzen dira, bestean, berriz, ikastola osatzen duten partaideen koordinazio-organoak dira.

Zerbitzuak: ikastolako komunitate osoari zuzenduriko zerbitzuak biltzen ditu, zerbitzuak anitzak dira.

- **Idazkaritza:** administrazio-lanez arduratzen den atala da. Bi pertsonak osatzen dute.
- **Ekintzailetza:** ikasle, ikasle ohien eta ikastolaren inguruko hiritarrek sustatu litzaketen enpresa-proiektuen laguntza-zerbitzua da. Ekintzaileari ikastolaren instalazioak erabiltzeko koordinazio-lanak egiten ditu idazkaritzarekin eta Garapen Agentziekin koordinatzen da.
- **Hizkuntza Normalizazioa:** euskararen normalizaziorako plana egiten du urtero, eta ekintzak koordinatzen ditu. Berritzeguneko koordinazioaren ardura bere gain hartzen du eta ikasturte amaieran memoria egiteaz arduratzen da. Hizkuntza Plana erredaktatzeaz eta betetzen dela ikuskatzeaz arduratzen da.
- **Ikasketa burutza:** tutoreen arteko koordinazioa kudeatzen du eta irakasteko metodologia berriak ezartzeko ardura dauka. Zikloekin koordinatzen da eta partaidetza-organoetan esku hartzen du.
- **Mantenua:** teknologia berrien funtzionamenduaren ardura bere gain hartzen du. Intzidentziak konpontzen ditu eta instalazioen funtzionamendu egokiaz arduratzen da.
- **Berrikuntza:** proiektu berritzaileen kudeaketaz arduratzen da, hala nola, ikastolak berezkoak dituenak, arloan arloko espezializaziokoak, lanbide-heziketan estrategikoak direnak eta nazioartekoak.


- **Genero berdintasuna:** ikastolan genero berdintasunari buruzko urteko plana garatzen du eta plana bera betetzen dela egiaztatzen du. Urte amaieran memoria egiteaz arduratzen da. Horrez gain, Emakunderen zentro kolaboratzailea izatetik datozen eginkizunak bere gain hartzen ditu. Ikasketa buruarekin batera, komunitate osoaren partaidetzaz arduratzen da dagokion arloan.
- **Jasangarritasuna:** lanbide-heziketan martxan diren egitasmoen koordinazioaz arduratzen da. Urtero Agenda 21 egitasmoaren urteko plana egiten du eta, urte bukaeran, memoria entregatzen du. Ikasketa buruarekin batera, komunitate osoaren partaidetzaz arduratzen da dagokion arloan.
- **Hizkuntzen irakaskuntza:** ikasleen hizkuntza trebetasunak hobetze aldera, sailak hizkuntza ikastaroak kudeatzeaz arduratzen da, bai Ingelesekoak bai Euskarakoak. Horretarako xedeak ezartzen ditu Hizkuntza Planean xedatutakoaren arabera.
- **Lan-poltsa:** ikasleen laneratzeaz arduratzen da, lan-eskaintzak bildu eta ikasle eta ikasle ohiei helarazten dizkie. Halaber, ikasleen CVak eguneratuta egotea arduratzen da.


Partaidetza-organoak

- **Eskola Kontseilua:** ikastola osatzen duen komunitateko estamentu guztiek parte hartuko dute organo honetan: zuzendaria, ikastolako titularraren hiru ordezkari, irakasleen lau ordezkari, Administrazio eta Zerbitzuetako pertsonalaren ordezkari bat, gurasoen bi ordezkari eta ikasleen beste bi ordezkari.

Bere eginkizunen artean dago, besteak beste, eskola-egutegia adostea eta ikastolak eskaintzen dituen zerbitzuen gaineko ikuskaritza lanak; gainera, bizikidetza-gaietan eragin zuzena duten arloetan proposamenak egiten ditu, batez ere, genero berdintasuna, jasangarritasuna eta hizkuntzen normalizazioan.

- **Elkarbizitza-lantaldea:** zikloetako ikasleen eta irakasleen arteko koordinazio-organoa da. Bertan ikasgeletako ordezkariak, ikasketa buruak, bizikidetzan inplikaturik leudekeen gaietako arduradunek parte hartuko dute. Bere eginkizunak bizikidetza arloetan planak diseinatzea, proposamenak egitea eta egiten direla ikuskatzea izango dira jasangarritasunaren arloan, genero berdintasunean eta hizkuntza normalizazioan. Lantaldearen beste eginkizunetako bat ikasleek ikastolako instalazioak erabiltzeko irizpideak adostea izango da.





4.2.3. Prestakuntza atala. LAE (Lanbide Arloko Ekipoa):

Ikastolan eskaintzen diren zikloek funtzionamendu autonomoa izatea lortu nahi da. Hori dela eta, zikloak autonomoki koordinatuko dira, ikasketa buruak egingo du enparauko zikloekiko lotura-lana, hala behar izanez gero.

Beraz, ziklo bakoitzak honako zerbitzu hauetaz arduratuko da modu autonomo batez:

- **Tutoretza:** tutorea beste irakasleekin koordinatuko da ikastaldearen martxa egokia dela egiaztatzeko eta arazoak kudeatzeko. Tutorea arduratuko da gurasoekiko harremanez, beharrezkoa den kasuetan.
- **Praktikak:** zikloan parte hartzen duten irakasle guztien artean banatuko da praktikak bilatzearen, enpresak esleitzearen eta praktikak tutorizatzearen ardura.
- **Duala:** ekipo bakoitza enpresak bilatzeaz eta duala kudeatzeaz arduratuko da.
- **Orientazioa:** tutorea, bere ekipoko gainerako irakasleekin koordinatuta, ikasleen orientazioaz arduratuko da, banakako arreta eskainiz.



Mikroinformatika Sistemak eta Sareak

- Tutoretza
 - LPK
 - Duala
- Orientazioa



3D animazioak, Jokoak eta Ingurune Elkarrengileak

- Tutoretza
 - LPK
 - Duala
- Orientazioa



Marketin eta Publizitatea

- Tutoretza
 - LPK
 - Duala
- Orientazioa



Kirol Ekintzen Sustapena

- Tutoretza
 - LPK
 - Duala
- Orientazioa



Natur Inguruneke Gorputz eta Kirol Ekintzen Gidaritza

- Tutoretza
 - LPK
 - Duala
- Orientazioa

5. Iraunaldia eta berrikuspena

Harrobiaren Hezkuntza Proiektua bost urtetik behin berrikusiko da. Berrikuspenean ikastola osatzen duten komunitateko partaide guztiek parte hartuko dute iradokizunak egiteko orduan. Onespenean ere komunitate osoak hartuko du parte eta informazioa modu sistematikoan bilduko da.

Adierazitako epea alda liteke, edo berrikuspenak egin epez kanpo, baldin eta honako kausa hauetako bat edo batzuk gertatuko balitz edo balira:

- Plantilaren 3/1 aldatzea
- Klaustroak, aho batez, hala erabakiko balu.
- Egoerak behartuta, baldintza nahikorik ez balego adierazitako punturen bat ez betetzeko
- Ikastolako zuzendaritza aldatuko balitz.
- Ikastolako Asanbladak hala proposatuko balu, asanbladak berak erabakiak hartzeko estatutetan adierazita duen prozedurari jarraituz.

Aldaketak egiteko proposamena zuzendaritzari helaraziko zaio eta bera arduratuko da prozedura bat zehazteaz Hezkuntza Proiektua berrikusteko, beti ere komunitatea osatzen duten partaide guztien iritziak, iradokizunak eta guztien onespenean bermatuz.

Hezkuntza proiektua estamentu guztiei ezagutaraziko zaie, bai ikastolaren barruan daudenei, bai ikastolarekin nola halako harremana dutenei ere. Hori dela eta, ikastolan bertan ikusgai jarriko da dokumentu honen laburpen bat, ahalik eta modu grafikoenean Hezkuntza Proiektuaren berri ematen duena eta, bide batez, teknologia berriak ere erabiliko dira proiektuaren berri emateko, dela webgunea, dela facebook, dela egoki deritzan beste edozein baliabide. Horrez gain, interesdunen batek hala eskatuko balu, txosten osoa irakurtzeko aukera izango luke.

Halaber, ikastolara datozen langile berriei ere, harrera planean, proiektuaren ildo nagusiaren berri emango zaio, eta aukera emango zaio proiektu osoa irakurtzeko, hala nahi izanez gero.